



Arartekoaren ebazpena, abenduaren 4koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari bere titulartasunekoak diren portuetan amarratzeak esleitzeko irizpideak alda ditzala iradokitzen zaio.

Aurrekariak

- Ontzi baten jabeak esan digu lehengo Garraio eta Herri Lan Sailak ez diola erantzunik eman Plentziako portuan amarratzeak esleitzeari buruzko informazio eskaerari.

Zehazki, 2008ko abuztuaren 28an aurkeztu zuen eskaera. Bertan, Plentziako portuan amarratze postuak esleitzeko eta itxaron zerrenda kudeatzeko erabilitako irizpideak justifikatzen dituzten arrazoiei buruzko informazioa eskatu zuen.

Erreklamazioan adierazi zuen ez zegoela ados 2004ko apirilaren 20ko Aginduan ezarritako irizpidearekin. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko portuetan eta portu instalazioetan profesional ez diren aisialdiko ontzien titularrek amarratze postuak aldi baterako erabil ditzaten baimena emateko prozedura arautzen da. Zehazki, 8. artikulua, amarratze plazak emateko deialdi publikoa argitaratzen den datan, portuan dauden erabiltzaileen amarratzea hartu ahal izateko lehentasuna ezartzen du.

Erreklamaziogileak uste du pertsona talde bati iraungitako baimena edukitzeagatik bakarrik edo amarratzea hori gaitzen duen titulurik gabe duten pertsonen lehentasunezko tratu hori ematea praktikan kalterako tratu diskriminatzailea dela baimena lortzeko aukera duten gainontzeko pertsonentzat.

- Erreklamazio horri dagokionez, Herri Lan eta Garraio Sailera jo dugu kexagileak aurkeztutako erreklamazioari emandako erantzuna ezagutzeko.

Portu eta Itsas Gaietako zuzendariak erreklamaziogileari Plentziako portuan amarratzeak esleitzeko irizpideei buruz bidalitako erantzunaren berri eman zigun.

Ezarritako aukeraketa prozedurari dagokionez, Plentziako portuaren kasuan, parte hartzaile guztien artean zozketa sistema jarraituz amarratze plazak emateko deialdi publikoak egin dira. 2004ko aginduaren ondoren, aldi





baterako baimenak gehienez ere hiru urterako eman dira. Baimenok deialdi publikoaren bidez eman dira eta, bertan, portuan dauden erabiltzaileek lehentasuna dute.

Zozketa bidez aukeraketa prozeduraren aldaketa justifikatzeari eta portuan dauden erabiltzaileei lehentasuna emateari dagokionez, sailak alegatzen duen zioa hauxe da: une oro zozketaren emaitzaren mende egon gabe, amarratze plaza duten erabiltzaileei nolabaiteko iraunkortasuna emateko beharra.

- Erreklamaziogileari erantzuna helarazita, erreklamaziogile horrek esan du ez dagoela ados lehentasunezko sistema horrekin. Izan ere, praktikan amarratze plaza duten erabiltzaileen artean ez dauden ontzien jabeentzat amarratze plaza bat lortzeko ezintasuna dakar. Deialdi bakoitzean eskubide horren lehentasuna sistemaren bidez gauzatzen da. Hala, aurreikusitako hiru urteko epeetik gorako denbora epeentzat amarratze eskubideetarako bidea eman daiteke.

Aurrekari horiek ikusita, egokia iruditu zaigu egungo Herri Lan, Garraio eta Etxebizitza Sailari kexa-espeditante honen inguruko gogoeta batzuen berri ematea, erreklamazioak hizpide duen gaiari dagokionez:

Gogoetak

1. Erreklamazioak honako hau du mintzagai: Plentziako portuan amarratzeak erabiltzeko baimenen esleipen irizpideekin desadostasuna, 2004ko apirilaren 20ko Aginduari jarraiki. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko portuetan eta portu instalazioetan profesional ez diren aisialdiko ontzien titularrek amarratze postuak aldi baterako erabil ditzaten baimena emateko prozedura arautzen da.

Amarratze postuak portuko jabari publikoa erabiltzeko aldi baterako baimenak dira eta titularrari gehienez ere hiru urtez portuko eremua hartzeko gaitzen dio.

Horrez gain, aginduak honako hauek jotzen ditu portuan dauden erabiltzaileentzat: emandako baimena iraungi zaien edo amarratzea titulurik gabe egiten den portuetan amarratze plaza duten pertsonak.

Amarratze postuak aukeratzeko prozesua zehazterakoan, xedapen horrek 8. artikuluan esleitzeko irizpide nagusi gisa honako hau ezartzen du:





“Deialdia argitaratzen den unean portuan dauden erabiltzaileei lehenetasuna emango zaie eta duten amarratze mota mantenduko zaie”.

Aurrekarietan azaldu den moduan, portu jakin batzuetan dauden erabiltzaileek lehenetasuna edukitzeak erabil daitezkeen edo hutsik dauden amarratze postuak egotea izugarri mugatzen du. Halaber, deialdi bakoitzean denbora mugarik gabeko lehenetasuna bermatzeak denbora mugarik gabeko hiru urteko epearen isilbidezko luzapena dakar.

2. Portuko jabari publikoaren inguruko emateak eta baimenak Portuko Jardueren Araudia onartzen duen urriaren 21eko 256/1986 Dekretuan daude araututa. 11. artikuluan, horiek arautzeko esparru juridikoa ezartzen da eta emateko egintza, araudia bera eta portuko jabari publikoari aplikatu ahal zaizkion gainontzeko araudiak aipatzen ditu.

Ildo horretan, EA Eren titulartasunekoak diren portuetako eta portu instalazioetako jabari publikoa indarrean dagoen Euskadiko Ondareari buruzko Legean ezarritako arauak zuzentzen dute, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testu bateginarekin bat etorritz.

Esan beharra dago lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren titulartasunekoak diren jabari publikoko ondasunak baimentzeko eta emateko xedapen orokorrak arautzen dituela. Baimenen kasuan, 79. artikulua barne hartzen duen prozedurak honako hau dio: kopuruak murrizten ditunean, ematea norgehiagoka erregimenaren bidez egingo da, eskatzaileen baldintza bereziak baloratu behar badira; bestela, zozketa bidez. Baimen horiek indarraldiaren gehienezko epearen mende daude eta epe hori ezin da bost urtetik gorakoa izan, luzapena ezarri daitezkeen arren; baimenaren iraupen denbora guztira ezin da izan zortzi urtetik gorakoa. Denbora muga hori igarota, jarraitu behar den prozedura administrazio emakida baino ez da. Kasu horretan, baimena emateko, norgehiagoka askea oinarri duen prozedura jarraitu behar da, lege gorputz bereko 74.1. artikulua.

Beraz, erabilera baimenak zozketa bidez edo norgehiagoka prozedura jarraituz, eskatzaileei baldintza berezi batzuk eskatzen zaizkienean, eman behar dira. Baimenaren epea ezin da izan zortzi urtetik gorakoa, luzapenak barne hartuta. Kasu horretan, erabilerak administrazio emakida eskatuko du.





3. Erreklamaziogilearen kexak portuko erabiltzaileen lehentasuna bateratzen duen esleipen sistema aipatzen du. Sistema horrek ez du norgehiagoka askea babesten eta mugarik gabeko denboran esleipenerako bidea ematen du.

Portuko jabari publikoko ondasunen erabilera berezia baimentzeko ezarritako arauak azaldu ondoren, kirol portuetan amarratzeak esleitzea adibidez, erreklamaziogilearen proposamenarekin bat ote datorren aztertu beharko da.

Norgehiagoka askeko erregimenak eskatzaileei baldintza zehatzak ezartzeko aukera ematen die. Ematearen inguruan erabaki bat hartzeko, eskatutako aprobetxamenduaren interes eta erabilera publikoa hartuko dira aintzat – Estatuko Portuei buruzko Legea 74.4. artikulua-.

Kasu honetan, aginduak ontzien dimentsio jakin batzuk eskatzea ezartzen du, baimenak eskuratu ahal izateko, jabari publikoaren kudeaketa hobea kontuan hartuta.

Ordea, aginduan eskatutako beste inguruabarra, portuan dauden erabiltzaileen lehentasuna, aurretik zeuden erabiltzaileen interesen alde egiten saiatzen da. Hala adierazten da xedapen honen zioen azalpenean. Hori horrela, portuen zuzendariak Arartekoari bidalitako txostenaren arabera, nolabaiteko iraunkortasuna duen amarratze plaza edukitzea da helburua, zozketaren mende egon gabe.

Erakunde honen ustez ez da justifikatuta geratu portuan jada instalatuta dauden erabiltzaileen alde egitea interes publikoko kontua denik. Are gehiago, lehen aipatutako arauen aurkakoak diren administrazio titulurik ez duten baimendu gabeko jabari publikoko okupazioak oinarri dituzten egoerak legitimatzen dituenean.

Edozelan ere, emandako denborak ondorio juridiko garrantzitsuak ditu, Estatuko Portuei buruzko Legeak ez baitu baimentzen epea zortzi urtetik gorakoa izatea.

Hortaz, lehentasunezko sistemak beste erabiltzaile posibleak egotea eragozten duen denbora mugarik gabeko isilbidezko luzapena dakar eta ondareari buruzko legerian ezarritakoa baino epe luzeagoan jabari publikoa hartzea ekar dezake.





Bistako datuak ikusirik eta administrazio horrek bidalitako informazioarekin eta egindako gogoeta juridikoekin bat, honakoak emango ditugu:

3/2009 IRADOKIZUNA, abenduaren 4koa, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailari egina

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garrio Sailak deialdi bakoitzean eskatzaile guztiek norgehiagoka askean parte har dezaten bermatuko duen amarratze plazak esleitzeko sistema arautu behar du, jada portuko erabiltzaileak direnak nagusitu gabe.

Plazak esleitu ondoren, sailak luzapenak baimendu ahal izango ditu erabiltzaileei beren atrakalekuetan nolabaiteko jarraipena bermatzeko. Nolanahi ere, baimenen denbora epea, luzapenak barne hartuta, ezingo da izan zortzi urtetik gorakoa.

